

**2022 EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO AURREKONTU
OROKORREN PROIEKTUA**

**PROYECTO DE PRESUPUESTOS
GENERALES DE LA COMUNIDAD
AUTÓNOMA DE EUSKADI 2022**

**TXOSTEN EKONOMIKO-FINANTZARIOA
INFORME ECONÓMICO-FINANCIERO**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**EKONOMIA ETA OGASUN
SAILA
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
Y HACIENDA**

**2022 EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO AURREKONTU
OROKORREN PROIEKTUA**

**PROYECTO DE PRESUPUESTOS
GENERALES DE LA COMUNIDAD
AUTÓNOMA DE EUSKADI 2022**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

EKONOMIA ETA OGASUN
SAILA
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
Y HACIENDA

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca General del Gobierno Vasco:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001

Argitaraldia / Edición: 1.a, 2021eko urria / 1a, octubre 2021

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco

Ekonomia eta Ogasun Saila / Departamento de Economía y Hacienda

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea / Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Aurkibidea / Índice :

| | |
|--|----|
| 1. EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA <i>LA COYUNTURA ECONÓMICA EN SÍNTESIS</i> | 5 |
| 2. EAE-KO EKONOMIA 2021EKO BIGARREN HIRUHILEKOAN <i>LA ECONOMÍA VASCA EN EL SEGUNDO TRIMESTRE DE 2021</i> | 8 |
| 2.1. EAeko Ekonomiaren Testuingurua <i>Contexto de la Economía Vasca</i> | 9 |
| 2.2. Ekoizpena eta Enplegua <i>Producción y Empleo</i> | 14 |
| 2.3. Barneko eta kanpoko eskaria <i>Demanda interna y externa</i> | 20 |
| 2.4. Prezioak, kostuak eta soldatak <i>Precios, costes y salarios</i> | 28 |
| 2.5 Arlo Publikoa <i>Sector Público</i> | 33 |
| 2.6. Arlo finantzarioa <i>Sector financiero</i> | 37 |
| 3. EAE-RAKO ETA TESTUINGURURAKO EKONOMIA-AURREIKUSPENA <i>PREDICCIONES ECONÓMICAS PARA EL PAÍS VASCO Y SU ENTORNO</i> | 44 |



1. EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA
LA COYUNTURA ECONÓMICA EN SÍNTESIS

EAEko ekonomiak %18,6ko urte arteko hazkunde tasa eskuratu zuen 2021eko bigarren hiruhilekoan, eta aparteko balio hori aldi horretako egoera urtebete lehenagokoarekin alderatzean lortzen da, pandemia kontrolatzeko murrizketa handienak zeuden unean, alegia. Biztanleria osoa txertatzeko programa martxan jartzea jarduera batzuk berriz irekitzea eta normaltasun egoerara itzultzea ahalbidetzen ari da. Barne produktu gordina bigarren hiruhilekoan asko handitu zen arren, oraindik ez da lortu birusa iritsi aurreko ekoizpen maila berreskuratzea, eta datozen hiruhilekoetan lortzea espero da. EAEko eta Europako ekonomien arteko alderaketak adierazten du 2020ko beharakada zein egungo errebotea handiagoak izaten ari direla Euskadin; izan ere, bigarren hiruhilekoan, euroaren eremu osoak %14,3ko gehikuntza tasa izan zuen, eta Europar Batasunak, berriz, %13,8koa.

Euskal ekonomiaren sektore nagusi guztiek aldakuntza tasa handiak eskuratu zituzten beren balio erantsian. Aipatzekoak dira orain urtebete portaera negatiboena izan zutenak, bereziki industria eta merkataritza, ostalaritza eta garraio taldeak. Lehenengo kasuan, bost hiruhilekotan jarraian behera egin ondoren, bigarren hiruhilekoan %30,2ko errebotea izan zuen balio erantsian, oso bultzada esanguratsua baita, eta ekoizpen maila 2019ko aldi berean lortutakotik bost puntura geratu du. Bigarrenean, duela urtebete izandako %26,9ko jaitsierak %26,1eko gorakada ahalbidetu du aurten, ostalaritzaren adarrak izan zituen eta oraindik dituen murrizketak gorabehera.

Eraikuntza izan zen 2020an zigorrik txikiena jaso zuen sektore ekonomikoa, eta haren balio erantsia %8,2 murriztu zen orduan, ekonomia osoaren %9,9aren aldean. Hori dela eta, normaltasunera itzultzeak urte arteko igoera handia ekarri du (%11,5), baina aipatutako beste sektore batzuetakoa baino apalagoa. Eskuragarri dagoen informazioaren arabera, eraikinen atalean dinamismoa handiagoa dago eta obra zibilak, berriz, erritmo motelagoan egiten du gora. Azkenik, sektore publikoari lotutako zerbitzuek (administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak) urte arteko aldakuntza erritmoa %3,1era bizkortu zuten, eta tasa horrek ia bikoiztu egiten du 2020ko batez besteko emaitza.

Eskariaren ikuspegitik nabarmendu behar den ezaugarria kanpoarekiko merkataritzaren susperraldia da. Izan ere, bost hiruhilekotan jarraian behera egin ondoren, 2021eko bigarren hiruhilekoan ondasunen eta zerbitzuen esportazioek zein inportazioek urte arteko %30 inguruko hazkunde tasak izan zituzten. Merkataritzaren suspertzea orokorra izan da, eta botila lepoak sortzen ari da salgaien itsaso bidezko garraioan, enpresek egindako eskaera guztiei irteera emateko edukiontzirik ez dagoelako eta lehengai eta produktu erdilandu jakin batzuen eskasia dagoelako.

Barne eskariari dagokionez, bere bi osagai nagusiek beherezko fasea atzean uztea lortu zuten eta indartsu egin zuten gora. Izan ere, kapital eraketa gordina %21,4 handitu zen urte arteko tasan, beraren bi osagaien bilakaera onari esker, bereziki ekipamendurako ondasunetan egindako inbertsioari esker, %41,3 hazi baitzen. Bestalde, gainerako inbertsioa, eraikuntzan egindakoa barnean hartzen baitu, %11,2 igo zen.

La economía vasca registró un incremento interanual del 18,6% en el segundo trimestre de 2021, un valor extraordinario que se consigue al comparar la situación de ese periodo con la existente un año antes, en el momento de mayores restricciones para controlar la pandemia. La puesta en marcha del programa de vacunación masiva de la población está permitiendo la reapertura de actividades y la vuelta a una situación de normalidad. A pesar de ese fuerte aumento del PIB, todavía no se ha conseguido recuperar el nivel de producción previo a la llegada del virus, algo que se espera conseguir en los próximos trimestres. La comparación de la economía vasca con las europeas indica que tanto la caída de 2020 como el rebote actual están siendo más intensos en Euskadi, dado que el conjunto de la zona del euro consiguió en el segundo trimestre un incremento del 14,3% y la Unión Europea del 13,8%.

Todos los sectores principales de la economía vasca anotaron variaciones intensas en su valor añadido. Destacan aquellos que tuvieron un comportamiento más negativo hace ahora un año, en especial la industria y el grupo de comercio, hostelería y transporte. En el primer caso, tras cinco trimestres consecutivos de descensos, en el segundo trimestre registró un rebote del 30,2% en su valor añadido, un impulso muy significativo, que deja el nivel de producción a cinco puntos del conseguido en el mismo periodo de 2019. En el segundo, el descenso del 26,9% que se produjo hace un año ha facilitado un rebote del 26,1% el presente año, a pesar de las restricciones que ha tenido y tiene todavía la rama de la hostelería.

La construcción fue el sector económico menos castigado en 2020 y su valor añadido se redujo un 8,2% frente al 9,9% del conjunto de la economía. Eso hace que su vuelta a la normalidad se haya traducido en un incremento interanual también importante (11,5%), pero más modesto que el de los otros sectores mencionados. La información disponible apunta a un mayor dinamismo de la edificación, mientras que la obra civil aumenta a un ritmo más moderado. Por último, los servicios ligados al sector público (administración pública, educación, sanidad y servicios sociales) aceleraron su ritmo de variación interanual hasta el 3,1%, una tasa que casi duplica el resultado medio del año 2020.

La característica a destacar desde el punto de vista de la demanda es la recuperación del comercio con el exterior. Efectivamente, tras cinco trimestres de descensos, en el segundo trimestre de 2021 tanto las exportaciones de bienes y servicios como las importaciones registraron incrementos del orden del 30% interanual. La reactivación del comercio es generalizada y está generando cuellos de botella en el transporte de mercancías por mar, ante la falta de contenedores para dar salida a todos los pedidos realizados por las empresas y la escasez de determinadas materias primas y productos semielaborados.

En lo referente a la demanda interna, sus dos componentes principales consiguieron dejar atrás la fase contractiva y aumentaron con fuerza. Así, la formación bruta de capital creció un 21,4% interanual, gracias a la evolución favorable de sus dos componentes, en especial de la inversión en bienes de equipo, que creció un extraordinario 41,3%. Por su parte, el resto de la inversión, que incluye la realizada en construcción, aumentó un 11,2%.

Azken kontsumoko gastuaren urte arteko tasa %18,1 izan zen bigarren hiruhilekoan. Gorakada hori kontsumo pribatuaren bultzadari esker lortu da (%22,6). Izan ere, kontsumorako joera berreskuratzen ari da, murrizketaaldi baten ondoren, eta, aldi horretan, aurreztea erabaki zuen, zuhurtziatzeko arrazoiengatik. Bestalde, administrazio publikoen kontsumoak joera hedatzaileagoa izan zuen pandemiaren ondoriozko premiei aurre egiteko, eta bigarren hiruhilekoan joera horri eutsi zion, %5,2ko gehikuntza eskuratuta.

Lan merkatuari dagokionez, BPGaren hazkunde tasa handiak pandemiaren lehen hilabeteetan galdutako enpleguaren zati handi bat berreskuratzea ekarri zuen berarekin. Zehatzago adierazita, BPGaren maila hori lortzeko beharrezkoa izan zen lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua %16,6 igo zen aurreko urtearekin alderatuta, eta tasa horren ondorioz 133.900 lanpostu teoriko (ez pertsonak) gehiago izan ziren aurreko urtean baino. Lanpostu teoriko horietako asko duela urtebete lana zuten, baina ABEE baten eraginpean zeuden pertsonen dagozkie, gaur egun beren enpresara itzuli baitira.

Ekonomia suspertzearekin batera, prezioak ere igo egin dira, batez ere lehengaien salneurriak. Hala gasa nola argindarra oso balio altuak izaten ari dira eta horrek abuztuko KPI indizea %3,3ra eraman du, hots, azken hamar urteetako baliorik gorenera. Hala eta guztiz ere, azpiko inflazioak (%1,0) iradokitzen du fenomeno iragankorrek direla eta ziurrenik igoera horiek ez direla finkatuko epe ertainean.

Gaur arte eskuragarri dagoen informazioari esker, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2021erako eta 2022rako prestatzen duen eszenategi makroekonomikoa eguneratu ahal izan du. Aurtengorako espero den hazkundera %6,7an geratu da berriro. Alde batetik, bigarren hiruhilekoko kontu ekonomikoen estimazioa, Eustatek egindakoa, espero baino hobea izan da. Bestalde, INEk bere aurrerapen datua beherantz berrikusi du berriki. Eragin positiboa, kasu batean, eta negatiboa, bestean, konpentsatu egiten dira, eta urteko batez besteko datuak aipatutako tasa hori izaten jarraitzen du. 2022rako, ordea, ingurune ekonomikorako igurikimenak, Espainiarako bereziki, hobetu egin dira, eta horrek eragin positiboa izango du EAeko ekonomian. Izan ere, orain %6,4 haziko dela espero da, aurreko aurreikuspenaren %5,7aren aldean. BPGaren deflatoarea aurretik espero zena baino altuagoa izango da; beraz, aurreikusitako BPG nominala %8,5 izango da 2021ean eta %7,9, berriz, 2022an.

El gasto en consumo final registró una tasa interanual del 18,1% en el trimestre. Ese avance se consigue gracias al fuerte impulso del consumo privado (22,6%), que va recuperando sus pautas de consumo tras un periodo de restricciones en el que optó por ahorrar por motivos de precaución. Por su parte, el consumo de las administraciones públicas tuvo un comportamiento más expansivo durante la pandemia, para hacer frente a las necesidades derivadas de ella, y en el segundo trimestre mantuvo esa tónica con un incremento del 5,2%.

En lo referente al mercado de trabajo, el intenso aumento del PIB trajo consigo una recuperación de buena parte del empleo perdido en los primeros meses de la pandemia. Más en detalle, el número de puestos de trabajo equivalentes a tiempo completo necesario para obtener ese nivel de PIB aumentó un 16,6% respecto al año anterior, una tasa que se traduce en 133.900 puestos de trabajo teóricos (no personas) más que el año anterior. Muchos de esos puestos de trabajo teóricos se corresponden con personas con empleo que hace un año se encontraban en situación de ERTE, pero que ahora han vuelto a su empresa.

Junto a la reactivación de la economía se ha producido un aumento de los precios, en especial de las materias primas. Tanto el gas como la electricidad están registrando valores muy elevados, que han llevado al IPC de agosto hasta una interanual del 3,3%, la más elevada de los últimos diez años. Sin embargo, la inflación subyacente (1,0%) sugiere que se trata de fenómenos transitorios que probablemente no se consolidarán en el medio plazo.

La información disponible hasta el momento ha permitido actualizar el escenario macroeconómico para 2021 y 2022 que realiza la Dirección de Economía y Planificación. El crecimiento esperado para el presente año se mantiene en el 6,7%. Por un lado, la estimación de las cuentas económicas del segundo trimestre, realizada por el Eustat, fue mejor de lo esperado. Por otro lado, el INE ha realizado recientemente una revisión a la baja de su dato de avance. La incidencia positiva, en un caso, y negativa, en el otro, se compensan y el dato medio del año sigue siendo esa tasa mencionada. Para 2022, las expectativas para el entorno económico, en especial para España, han mejorado y eso tendrá una incidencia positiva en la economía vasca, que ahora se espera que crecerá un 6,4%, frente al 5,7% de la previsión anterior. El deflactor del PIB será más elevado de lo anteriormente esperado, por lo que el PIB nominal previsto se sitúa ahora en el 8,5% para 2021 y en el 7,9% para 2022.



2. EAE-KO EKONOMIA 2021EKO BIGARREN HIRUHILEKOAN
LA ECONOMÍA VASCA EN EL SEGUNDO TRIMESTRE DE 2021




2.1. EAeko Ekonomiaren Testuingurua
Contexto de la Economía Vasca

Aurtengo bigarren hiruhilekoan argitaratutako datuek susperraldi ekonomikoa egonkortu egin dela baieztatu dute. Susperraldi horren oinarria azken hamarkadetan ikusi ez diren programa fiskal oso hedakorak aplikatzea eta banku zentralekin finantzaziorako baldintza oso lasaiak mantentzea da. Zehatzago esanda, pandemiaren bilakaera egonkortu izanak, txertaketa programetan izandako aurrerapenari esker, herrialde batzuetan mugimenduari eta sozializazioari ezarritako mugak kentzea eta are amaitzea ahalbidetu zuen, eta horrek kontsumoari konfiantza eman zion eta barne eskariari bultzada handia eman zion. Hori guztia, koronabirusaren delta aldaera berria agertu zen arren, kutsatzeak areagotu egin ziren hainbat ekonomiatan, nahiz eta txertaketa tasa handi samarrak zituztenek oso mugatuta ikusi zituzten beren osasun sistemen presioak.


Los datos publicados durante el segundo trimestre del año confirmaron el afianzamiento de la recuperación económica. Una recuperación cuya base es la aplicación de programas fiscales expansivos no vistos en las últimas décadas y el mantenimiento de unas condiciones financieras extremadamente laxas por parte de los bancos centrales. Más en detalle, la estabilización en la evolución de la pandemia, gracias al avance en los programas de vacunación, permitió un levantamiento e incluso el fin en algunos países de las restricciones al movimiento y la socialización, lo que dio una dosis de confianza al consumo y un fuerte empujón a la demanda interna. Todo ello, a pesar de la aparición de la nueva variante delta del coronavirus, que provocó un incremento de los contagios en varias economías, si bien aquellas con tasas de vacunación relativamente elevadas vieron muy limitadas las presiones de sus sistemas sanitarios.

Munduko ekonomia. BPG (I)
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: ELGE.

Economía mundial. PIB. (I)
Tasas de variación interanual



Fuente: OCDE.

Eskariaren gorakada indartsu eta azkarrarekin batera ez zen eskaintzaren gorakada bat gertatu. Industriaren sektorean ondasunak hornitzeko orduan izandako atzerapenak eta herrialde batzuetan eskulanik ez izateak botila lepo bat ekarri zuten, baina aldi baterako izatea espero da, nahiz eta, oraingoz, normaltasunera itzultzea atzeratzen ari da. Horren guztiaren ondorioz, inflazioak gora egin zuen mundu osoan eta, aldi berean, tentsionatu egin zen lehengaien prezioen igoeragatik. Oinarri efektuak azaltzen du igoera horren zati handi bat.

Txina izan zen aurreko hiruhilekoan baino gutxiago hazi zen ekonomia handi bakarra. Zehazkiago adierazita, %7,9 egin zuen gora, eta aurtengo lehen hilabeteetan, berriz, %18,3. Bigarren hiruhilekotik aurrera hazkundea moteldu egingo zela eta 2021eko gainontzeko aldietan hala jarraituko zuela jadanik aurreikusita zegoen adituen artean.

Alde batetik, lehen hiruhilekoan izandako hazkundearen gorakada handiak erakusten zuelako Txinako ekonomiak 2020ko urtariletik martxora izandako jaitsiera gogorra (-

El fuerte y rápido repunte de la demanda no fue igualmente acompañado por un incremento de la oferta. Los retrasos en algunos suministros de bienes en el sector industrial y la falta de disponibilidad de mano de obra en algunos países supusieron un cuello de botella, que se espera sea temporal, pero que por el momento retrasa la vuelta a la normalidad. Todo ello conllevó un aumento de la inflación a nivel mundial, que a su vez, fue tensionada al alza por el incremento de los precios de las materias primas. El efecto base explica gran parte de este aumento.

China fue la única gran economía que creció por debajo del registro del trimestre previo. En concreto, avanzó un 7,9% frente al 18,3% de los primeros meses del año. La moderación del crecimiento a partir del segundo trimestre y que se estima se mantendrá durante el resto de 2021 era algo ya previsto por los expertos.

Por un lado, porque el fuerte aumento del crecimiento en el primer trimestre reflejaba el duro descenso (-6,8%) que la economía china había sufrido en el periodo de enero a

%6,8), pandemiaren une gogorrean. Eta, beste aldetik, azken hilabeteetan zifra makroekonomikoen bultzadaren indarra zertxobait moteldu dela adierazten hasi direlako. Izan ere, esportazioek, bigarren hiruhilekoan BPGaren bultzatzaile nagusiak baitira, %31,0 egin zuten gora epe horretan, eta, ondoren, dinamismoa galtzen hasi ziren. Izan ere, badirudi esportazioek goia jo dutela eta datozen hiruhilekoetan leundu egingo direla, txertaketa kanpainak eta berriz irekitzeak kontsumorako joera globalak normalizatzen laguntzen duten heinean. Hala eta guztiz ere, Txinako gobernuak uste du aurrerapen hori hazkunde sendoaren eta susperraldi etengabearen isla dela, ekoizpenak eta eskariak gora egin baitute, eta enplegua eta prezioak egonkor mantendu dira.

Garapen bidean dauden gainerako ekonomiek, urteko bigarren hiruhilekoan indartsu hazi baziren ere, neurri handi batean 2020ko datuekin alderatutako errebote estatistikoaren ondorioz, oraindik ez dute birusaren hedapenaren aurreko hazkunde mailak berreskuratu. Zehatzago adierazita, Indiak harridura sortu zuen BPGaren %20,9ko hazkunde batekin. Apirilean pandemiaren epizentroatza izan ondoren, maiatza eta ekaina bitartean eguneroko infekzio eta heriotza kopurua minimoetara jaitsi zen, eta horri esker normaltasuna berreskuratu zen eta kontsumo pribatua eta inbertsioa bultzatu ziren. Amerika Latinoan, barneko zein kanpoko eskaria suspertzeak eta lehengaien eta beste esportazio ondasun batzuen prezioak hobetzeak indarrez bultzatu zuten jardura. Hain zuzen ere, Mexiko %19,5 hazi zen eta Brasil, berriz, %12,4.

Ekonomia garatuek, berriz, %13,0 egin zuten gora, oro har. Hala eta guztiz ere, ELGEk argitaratutako datuen arabera, 2021eko bigarren hiruhilekoan bere BPGak 2019ko laugarren hiruhilekoari zegokion maila baino %0,7 beherago jarraitu zuen. Pandemia lehertu aurretik zuten jarduerarekiko arrakala handienak dituzten herrialdeak honako hauek dira: Espainia (-%6,8), Portugal (-%4,6), Erresuma Batua (-%4,4), Italia (-%3,8), Alemania (-%3,3) eta, azkenik, Frantzia (-%3,2). AEBak egoera positiboan kokatu ziren 2021eko lehen hilabeteetan bertan, eta zazpi ekonomia nagusien artean osasun krisiaren aurreko jardura mailak berreskuratu dituen bakarra izan zen 2021eko bigarren hiruhilekoan, pandemiaren aurreko ekoizpen bolumena %0,8 gaindituz.

Zehatz-mehatz azalduta, AEBetako jardura ekonomikoa %12,2 sendoa hazi zen, neurri handi batean martxoaren erdialdean onartutako 1,9 bilioi dolarreko pakete fiskalak eta ekonomia berriz irekitzeak bultzatuta. BPGaren gorakada hori gastu pribatuaren, inbertsio finakoaren, esportazioen eta estatuetako zein tokiko gobernuen gastuaren gorakadan oinarritu zen, egituretako inbertsio pribatuaren murrizketak eta gobernu federalaren gastu txikiagoa konpentsatu zituztelako.

Era berean, adierazleek lan merkatu sendoa ere erakusten dute, abuztuan herrialde hartako langabezia tasa %5,2ra murriztu zuena. Tasa horrek esan nahi du 2020ko maiatzean susperraldia hasi zenetik, AEBek nekazaritzakoak ez diren 17 milioi lanpostu berreskuratu dituztela, hau da, krisiak suntsitutako lanpostuen hiru laurdenak berriro eskuratu dira. Datu negatiboa inflazioaren eskutik etorri zen, uztailen %5,4ra iritsi baitzen, azken hamahiru urteetako mailarik altuena baita. Hornidura katearen etenaldi etengabeak, jardura ekonomikoa suspertu ahala bidaiei lotutako zerbitzuen eskaera handiagoak eta energiaren prezioaren igoerak azaltzen dute goera bizi hori.

marzo de 2020, en lo peor de la pandemia. Y, por otro lado, porque en los últimos meses las cifras macroeconómicas han comenzado a apuntar una relativa pérdida de impulso. De hecho, las exportaciones, principal impulsor del PIB en el segundo trimestre, crecieron un 31,0% en dicho periodo, para posteriormente comenzar a perder dinamismo. Y es que las exportaciones parecen haber alcanzado su techo y se suavizarán en los próximos trimestres a medida que las campañas de vacunación y la reapertura contribuyen a normalizar las tendencias de consumo globales. Con todo, el gobierno chino considera que este avance es reflejo de un crecimiento sólido y de una recuperación constante, con un repunte de la producción y la demanda, mientras que el empleo y los precios se mantuvieron estables.

El resto de economías emergentes, si bien crecieron con fuerza en el segundo trimestre del año, debido en buena parte al rebote estadístico observado en la comparativa con los datos de 2020, todavía distan de recuperar los niveles de crecimiento previos a la expansión del virus. Más en detalle, India sorprendió con un incremento del PIB del 20,9%. Tras situarse en abril como epicentro de la pandemia, entre mayo y junio el número de infecciones y de muertes diarias descendió hasta mínimos, lo que permitió recuperar cierta normalidad e impulsó el consumo privado y la inversión. En América Latina la reactivación de la demanda, tanto interna como externa, y la mejora en los precios de las materias primas y otros bienes de exportación impulsaron con fuerza la actividad. En concreto, México creció un 19,5% y Brasil un 12,4%.

Las economías desarrolladas, por su parte, crecieron en conjunto un 13,0%. Aun así, según los datos publicados por la OCDE, su PIB continuó en el segundo trimestre de 2021 un 0,7% por debajo del nivel correspondiente al cuarto trimestre de 2019, siendo los países con mayores brechas respecto a la actividad que tenían antes del estallido de la pandemia España (-6,8%), Portugal (-4,6%), Reino Unido (-4,4%), Italia (-3,8%), Alemania (-3,3%) y Francia (-3,2%). Estados Unidos, que ya logró situarse en terreno positivo en los primeros meses de 2021, fue la única economía de las siete principales que ha recuperado los niveles de actividad previos a la crisis sanitaria en el segundo trimestre de 2021, superando en un 0,8% el volumen de producción anterior a la pandemia.

Concretamente, la actividad económica estadounidense creció un robusto 12,2%, impulsada, en gran medida, por el paquete fiscal aprobado a mediados de marzo de 1,9 billones de dólares y la reapertura de la economía. Este avance del PIB se sustentó en el aumento del gasto privado, la inversión fija, las exportaciones y el gasto de los gobiernos tanto estatales y locales, que compensaron las disminuciones en la inversión privada en estructuras y el menor gasto del gobierno federal.



Asimismo, los indicadores también muestran un mercado laboral sólido, que redujo su tasa de paro en agosto hasta el 5,2%, tasa que supone que desde que comenzó la recuperación en mayo de 2020, Estados Unidos ha restablecido 17 millones de empleos no agrícolas, tres cuartas partes de los puestos de trabajo destruidos con la crisis. El dato negativo vino de la mano de la inflación, que en julio alcanzó el 5,4%, nivel máximo de los trece últimos años. Las continuas interrupciones en la cadena de suministro, una mayor demanda de servicios vinculados a viajes a medida que la actividad económica se recupera, así como el incremento del precio de la energía explican este fuerte incremento.

Japonian, Covid-19 kasuek bigarren hiru hilabetez izandako gorakada berriak euste neurriak gogortzea eragin zuen, eta horrek zerbitzuen jardura indarke mantentzea ekarri zuen. Aldi berean, erdieroaleen eskasiak industria ekoizpena beherantz baldintzatu zuen, maiztzeke eta ekaineko manufaktura PMI indizean islatu zen bezala. Hala ere, bertako BPG %7,7 hazi zen, kontsumo pribatuaren eta esportazioen bultzadari esker. Dena dela, urtearen bigarren erdian susperraldi sendoagoa espero da. Izan ere, txertaketa erritmoa nabarmen hobetzeak eta kanpo ingurune onuragarriagoak hazkunde erritmoari eutsiko diote, eta are gehiago, handituko dute. Prezioen bilakaera, azkenik, nabarmen hobetu zen, nahiz eta herrialde japoniarra ez zen egoera positiboan kokatu. Zehazki, KPIa -%1,1era jaitsi zen apirilean, telefono mugikorren prezioak behera egin zuelako, eta uztailean -%0,3ra igo zen.

En Japón el nuevo aumento de los casos de Covid-19 en el segundo trimestre provocó un endurecimiento de las medidas de contención, que a su vez implicó que la actividad de los servicios se mantuviese retraída. Al mismo tiempo, la escasez de semiconductores condicionó a la baja la producción industrial, tal y como se reflejó en su PMI manufacturero de mayo y junio. Con todo, su PIB creció un 7,7%, gracias al tirón del consumo privado y las exportaciones. Aun así, se espera una recuperación más firme en la segunda mitad del año, en la que una mejora significativa del ritmo de vacunación y un entorno exterior más favorable probablemente sostengan e incluso impulsen el ritmo de crecimiento. La evolución de los precios, por último, mejoró notablemente, si bien el país nipón no logró situarse en terreno positivo. Concretamente, tras contraerse el IPC hasta el -1,1% en abril debido a una bajada récord de los precios de los teléfonos móviles, en julio repuntaron hasta el -0,3%.

Munduko ekonomia. BPG (II)
Urte arteko aldakuntza tasak

Economía mundial. PIB (II).
Tasas de variación interanual



Iturria: Eurostat eta BEA.

Fuente: Eurostat y BEA.

Europar Batasunari dagokionez, eremu hori suspertu egin zen aurtengo bigarren hiru hilabetez. Txertatutako pertsonen kopuruak gora egin zuen etengabe eta konfinamenduei lotutako murrizketak leuntzen joan ziren inguruko herrialde gehienetan. Zehazkiago, kontinente zaharra %13,8 hazi zen urte arteko tasan, eta, hala, hazkunde positiboekin berrekin ziren. Hazkunde hori barne eskariaren (11,6 puntu) eta kanpo eskariaren (2,2 puntu) ekarpenaren emaitza izan zen, eta horrek hazkunde sendoa eta orekatua islatzen du. Euroguneak antzeko jokoera erakutsi zuen, baina biziagoa izan zen. Kasu horretan, jardura ekonomikoa %14,3 areagotu zen.

Herrialdeka, joera antzekoa izan zen. Iazko laugarren hiru hilabetez eta 2021eko lehenengoan birusaren olatuek hazkundearen eten ostean, BPGa suspertzen hasi zen berriro. Datuak martxotik susperraldi bat erakusten ari ziren, eta maiztzeke errebote oso indartsu bat, murrizketen erlaxazioak eta txertaketaren aurrerapenek bultzatua. Horri erantsi behar zaio 2020ko hiru hilabetezko bereko alderaketa

En lo que respecta a la Unión Europea, el área se recuperó en el segundo trimestre del año. El número de personas vacunadas aumentó sin parar y las restricciones asociadas a los confinamientos se fueron suavizando en la mayoría de los países de la zona. En concreto, el Viejo Continente creció un 13,8% interanual, retomando así los crecimientos positivos. Este aumento fue fruto de la aportación tanto de la demanda interna (11,6 pp), como de la externa (2,2 pp), lo que refleja un crecimiento sólido y equilibrado. La zona del euro mantuvo una senda similar, si bien más intensa. En este caso, la actividad económica se alzó hasta el 14,3%.

Por países, la tendencia fue similar. El PIB retomó con fuerza la recuperación tras la interrupción del crecimiento que se registró por las olas del virus en el cuarto trimestre del año pasado y el primero de 2021. Los datos ya mostraban desde marzo una recuperación, y desde mayo un rebote muy vigoroso, propulsado por la relajación de las restricciones y los avances en la vacunación. A ello se le

efektua, orduan ekonomiak kolapsatu egin baitziren. Horren guztiaren ondorioz, kontsumo pribatuaren, pandemian metatutako aurrezki poltsak bultzatuta, inbertsioaren eta esportazioen datuek gora egin zuten herrialde gehienetan, eta aurrekaririk gabeko BPGaren hazkundeak erregistratzea ahalbidetu zuten. Gainerako bazkide komertzialen aldean, Frantzia nabarmendu zen, jarduera ekonomikoak %18,7 egin baitzuen gora, ondoren Espainia (%17,5), Italia (%17,3), Portugal (%15,5) eta Alemania (%9,4).


Inkesten arabera, dinamismo hori hirugarren hiruhilekoaren hasieran ere mantendu zen. Hori horrela, Europako Batzordeak Europar Batasunerako argitaratzen duen sentimenduaren indizeak maximo historiko berriak lortu zituen uztailean (118,0, ekaineko 117,1 haren aldean), baina abuztuan indarra galdu zuen, 116,5ean kokatu baitzen. Joera bera hauteman zen euroaren eremuan, baita lehen aipatutako herrialde nagusien artean ere. PMI indize konposatuek ere ibilbide hori erakusten dute: maximoak uztailean (60,1 Europar Batasunean eta 60,2 Eurogunean) eta moteltzea abuztuan. Hala eta guztiz ere, lortutako mailak altuak izaten jarraitu zuen, hedatzen ari diren ekonomiei dagozkienak. Dinamismo txikiago hori eremu eta herrialde horien hazkundeak goia jotzear egotearen ondorio izan daiteke, eta, beraz, urtearen azken hilabeteetan nolabaiteko normalizazioa espero da, BPGaren hazkunde erritmoak apalagoak baina oraindik altuak lortze aldera.

Itxura guztien arabera, munduko ekonomia nagusiek krisian galdutako BPGaren mailak 2021an zehar berreskuratuko dituzte, nahiz eta eszenategi ekonomikoak konplexua izaten jarraituko duen, birusaren balizko mutazioen eta munduko ekoizpen kateen hausturek eragin ditzaketan desoreken eraginean.

sumó el efecto comparativo con el mismo trimestre de 2020, cuando las economías colapsaron. Como resultado de todo ello, los datos del consumo privado, impulsado por la bolsa de ahorro acumulada durante la pandemia, la inversión y las exportaciones despegaron en la mayoría de los países, y permitieron registrar unos crecimientos del PIB sin precedentes. Destacó sobre el resto de socios comerciales Francia, con un avance de la actividad económica del 18,7%, seguido de España (17,5%), Italia (17,3%), Portugal (15,5%) y Alemania (9,4%).

Las encuestas confirman que este dinamismo de la zona se mantuvo en el inicio del tercer trimestre. Así, el índice de sentimiento de la Comisión Europea para la Unión Europea alcanzó nuevos máximos históricos en julio (118,0 frente al 117,1 de junio), si bien en agosto perdió cierto tono al situarse en el 116,5. Esta misma tendencia se mantuvo en la zona del euro, así como entre los principales países anteriormente mencionados. Los índices PMI compuestos también avalan esta trayectoria, con máximos en el mes de julio (60,1 en la Unión Europea y 60,2 en la zona del euro) y una posterior desaceleración en agosto. Con todo, los niveles siguieron siendo elevados y propios de economías en expansión. Es probable que este menor dinamismo se deba a que el crecimiento de estas áreas y países esté cerca de tocar techo, por lo que cabe esperar una cierta normalización en los meses finales del año hacia ritmos de avance del PIB más moderados pero aún elevados.

Todo parece indicar que las principales economías del mundo recuperarán durante 2021 los niveles de PIB perdidos en la crisis, aunque el escenario económico seguirá siendo complejo, supeditado a los efectos de las potenciales mutaciones del virus y a los desajustes que pueden estar provocando las disrupciones en las cadenas de producción mundiales.



2.2. Ekoizpena eta Enplegua
Producción y Empleo

2021eko bigarren hiruhilekoan, EAeko ekonomia %18,6 hazi zen urte arteko tasan. Ezohiko tasa hori 2020ko hiruhileko batekin alderatuta lortu da, garai horretan mugigarritasunari eta gizarte interakzioari murrizketa handiak ezarriak zirelako. Txertoen etorrerak eta biztanleriaren inokulazio masiboaren prozesuak murrizketa horiek pixkanaka kentzea ahalbidetu dute, baina murrizketak ez dira erabat desagertu. EAeko ekonomiak erregistratutako errebotea bezalakoak ohikoak izan dira Europako gainerako ekonomietan ere, baina 2020an jaitziera txikiak izan zituztenek igoera txikiagoak eskuratu dituzte oraingoan. Hain zuzen ere, Europar Batasuna, oro har, %13,8 hazi zen eta eurogunea, berriz, %14,3. Espainiaren hazkunde tasa %19,8ra iritsi zen eta Alemaniarena, berriz, %9,4ra.

En el segundo trimestre de 2021, la economía vasca creció un 18,6% interanual, una tasa extraordinaria que se explica por su comparación con un trimestre de 2020 en el que había fuertes restricciones a la movilidad y a la interacción social. La llegada de las vacunas y el proceso de inoculación masiva de la población han permitido el levantamiento progresivo de esas restricciones, aunque no totalmente. Rebotes como el registrado por la economía vasca han sido habituales en el resto de economías europeas, aunque aquellas que registraron menores descensos en 2020 han obtenido ahora incrementos menos intensos. Así, el conjunto de la Unión Europea creció un 13,8% y el de la zona del euro un 14,3%. España llega hasta el 19,8% al tiempo que Alemania anota un 9,4%.

| Eskaintzaren aldagaiak Urte arteko aldakuntza tasak | Variables de la oferta Tasas de variación interanual | | | | | | | |
|--|---|-------------|--------------|-------------|-------------|-------------|-------------|----------------------------|
| | 2019 | 2020 | 2020 | | | 2021 | | |
| | | | II | III | IV | I | II | |
| BPG erreala | 2,2 | -9,9 | -19,9 | -8,1 | -8,1 | -2,9 | 18,6 | PIB real |
| Nekazaritza eta arrantza | 5,9 | -15,0 | -13,7 | -13,0 | -28,1 | -7,1 | 7,8 | Agricultura y pesca |
| Industria eta energia | 1,4 | -11,2 | -26,2 | -8,9 | -6,8 | -1,1 | 30,2 | Industria y energía |
| - Manufaktura industria | 1,1 | -11,6 | -27,3 | -8,8 | -6,6 | -0,7 | 33,1 | - Ind. manufacturera |
| Eraikuntza | 2,4 | -8,2 | -16,7 | -7,7 | -6,5 | -2,4 | 11,5 | Construcción |
| Zerbitzuak | 2,5 | -9,0 | -17,8 | -7,2 | -7,7 | -3,5 | 15,5 | Servicios |
| - Merkat., ostal, garraioa | 2,2 | -18,1 | -26,9 | -16,0 | -18,5 | -5,5 | 26,1 | - Comercio, hostel.transp |
| - AA. PP., hezk., osasuna | 3,2 | 1,6 | 1,3 | 1,6 | 1,3 | 1,6 | 3,1 | - AA. PP., educ. y sanidad |
| - Gainontzeko zerbitzuak | 2,4 | -8,6 | -21,9 | -6,1 | -5,2 | -5,0 | 17,3 | - Resto de Servicios |
| Balio erantsi gordina | 2,3 | -9,5 | -19,7 | -7,7 | -7,6 | -2,9 | 18,4 | Valor añadido bruto |
| Ekoiak g/ zerga garbiak | 2,0 | -13,6 | -21,3 | -11,8 | -12,8 | -3,0 | 20,4 | Impuest. netos s/ produc. |

Iturria: Eustat.

Fuente: Eustat.

Bigarren hiruhilekoko hazkunde handia ezaugarri komuna da EAeko ekonomiaren sektore nagusi guztientzat, baina horien artean nabarmentzekoa da industriak lortutako bultzada handia, hori izan baitzen iaz balio erantsi gehien galdu zuen jardura. Hala, industriaren urte arteko gorakada %30,2 izan zen, eta tasa horrek ez du aurrekaririk bere serie historikoan, non oso gutxitan ikusten baita %10etik gorako balioa.

IPI indizeak hilero ematen duen informazioak erakusten du igoerarik handiena apirilean gertatu zela (%65,1), eta data horretatik aurrera aldakuntza tasak apalduz joan direla portzentaje apalagoetara arte, urte arteko alderaketa hilabete homogeneagoen artean egiten zen heinean. Argitaratutako azken datuak, uztailari zegokionak, urte arteko tasa %7,6an kokatu zuen, eta zifra hori, oraindik esanguratsua den arren, apaltzen jarrai zezakeen, hainbat

El abultado incremento del segundo trimestre es una característica común a todos los sectores principales de la economía vasca, pero destaca entre ellos el fuerte impulso conseguido por la industria, que también fue la actividad que más valor añadido perdió el año pasado. Así, el aumento interanual en la industria alcanzó un 30,2%, una tasa que no tiene precedente en su serie histórica, en la que rara vez se observa un valor superior al 10%.

La información mensual que ofrece el IPI muestra que el mayor incremento se registró en el mes de abril (65,1%) y que desde esa fecha las tasas de variación se han ido moderando hasta porcentajes más modestos, a medida que la comparación interanual se hacía entre meses con situaciones más homogéneas. El último dato publicado, correspondiente a julio, dejaba la tasa interanual en el 7,6%, una cifra significativa que podría seguir

piezaren horniduran sortzen ari diren botila lepoak kontuan hartuta.

moderándose, dados los cuellos de botella que se están generando en el suministro de diferentes piezas.

| | Jarduera adierazleak | | Indicadores de actividad | | | | | |
|-----------------------------|------------------------------|-------|-------------------------------|-------|-------|-------|---------|----------------------------|
| | Urte arteko aldakuntza tasak | | Tasas de variación interanual | | | | | |
| | 2019 | 2020 | 2020 | | | 2021 | | |
| | | | II | III | IV | I | II | |
| Industria | | | | | | | | Industria |
| Industria produkzio ind. | 1,6 | -13,3 | -27,6 | -12,1 | -7,1 | -0,9 | 32,3 | Índ. produc. industrial |
| Negozio zifren indizea | -0,4 | -16,2 | -32,9 | -13,6 | -6,3 | 4,2 | 42,1 | Cifra de negocios |
| Industria giroraren indizea | -7,1 | -19,5 | -35,2 | -24,1 | -7,6 | -3,5 | -10,1 | Índice de clima industrial |
| Gizarte Seg. afiliazioa | 0,6 | -3,2 | -3,7 | -4,5 | -3,6 | -3,4 | -0,4 | Afiliación a la SS |
| Eraikuntza | | | | | | | | Construcción |
| Eraikuntza koiuntura ind. | 8,7 | -8,1 | -16,6 | -9,3 | -8,8 | -1,1 | 14,8 | Índ. coyuntural construc. |
| Etxe berrietarako bisatuak | -7,1 | -6,5 | -20,9 | -21,8 | 60,1 | 72,6 | --- | Visados vivienda nueva |
| Etxebizitzien salerosketak | 2,2 | -15,0 | -34,6 | -2,5 | -7,1 | 1,9 | 47,2 | Compraventa viviendas |
| Gizarte Seg. afiliazioa | 3,0 | -0,9 | -2,8 | -0,8 | -1,1 | -1,0 | 3,3 | Afiliación a la SS |
| Zerbitzuak | | | | | | | | Servicios |
| Hegazki bidezko bidaiariak | 8,5 | -71,6 | -99,0 | -70,0 | -81,8 | -83,2 | 2.440,3 | Tráfico aéreo pasajeros |
| Hoteletan gaualdiak | 3,7 | -61,5 | -92,2 | -50,8 | -71,4 | -59,3 | 422,1 | Pernoctaciones hoteleras |
| Negozio zifren indizea | 4,2 | -12,4 | -26,6 | -9,1 | -8,4 | 0,9 | 33,4 | Índice cifra negocios |
| Zerbitzuen koiuntura ind | 1,1 | -7,4 | -18,7 | -0,6 | -4,6 | 2,0 | 20,0 | Índ. coyuntural servicios |
| Gizarte Seg. afiliazioa | 2,3 | -0,8 | -1,9 | -1,6 | -1,8 | -1,5 | 2,2 | Afiliación a la SS |

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Gizarte Segurantzaren eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Fuente: Elaboración de la Dirección de Economía y Planificación según datos del Eustat, INE, Ministerio de Industria, Comercio y Turismo, Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana, Seguridad Social y AENA.

Gorakada orokorra da industriaren adarren artean, salbuespen bakarra energiaren ekoizpena izan delarik, igoerak eta jaitzierak txandakatzen baititu joera argirik gabe. Nabarmenezkoa da kontsumorako ondasunen egoera ona. Izan ere, produktu horiek uztailean ekoizpena %11,8 handitu zuten, eta horiek dira 2019ko hilabete berean, pandemia iritsi baino lehen, zeukaten maila gaitzen duten ondasun bakarrak. Emaizta bereziki positiboa da kontsumo iraunkorreko ondasunetan (%41,9), baina ondasun galkorrak ere tasa positiboetan daude (%5,6). Beste aldetik, ekipamendurako ondasunek (%7,3) eta bitarteko ondasunek (%8,9) igoera handiak eskuratu zituzten uztailean, baina bi kasuetan 2019ko hilabete berean izan zuten ekoizpen maila berreskuratzeko zazpi puntu falta dira.

Industriaren negozio zifrak ekoizpenak zehaztutako norabidearen antzekoa eskaini du. Hau da, apirilean izan zuen maximoa, eta hurrengo hilabeteetan leuntzen joan zen, ekainean (ezagutu den azken hilabetea) %12,4ra iritsi

El impulso es generalizado dentro de la industria, con la única excepción de la producción de energía, que alterna subidas y bajadas sin una tendencia clara. Destaca el buen momento de los bienes de consumo, que aumentaron su producción en julio un 11,8% y que son los únicos que superan ya el nivel que alcanzaron en el mismo mes de 2019, antes de la pandemia. El resultado es especialmente positivo en los bienes de consumo duradero (41,9%), pero los perecederos también se encuentran en tasas positivas (5,6%). Por su parte, tanto los bienes de equipo (7,3%) como los intermedios (8,9%) consiguieron incrementos todavía importantes en julio, pero en ambos casos se encuentran a unos siete puntos de recuperar el nivel de producción que tuvieron en el mismo mes de 2019.

La cifra de negocios de la industria ofrece un perfil similar al definido por la producción, con un máximo en el mes de abril, que se va suavizando en los meses siguientes hasta el 12,4% de junio, último mes conocido. A pesar de esos

arte. Eraitza on horiek lortu badira ere, sektoreko igurikimenek okerrera egin dute udako hilabeteetan, EAEko ekonomiako hainbat sektorek dituzten hornidura arazoan ondorioz. Bereziki abuztuan, nolabaiteko ezkortasuna antzematen da eskaera zorroari eta ekoizpenaren joerari buruzko iritzietan, saldu gabeko produktu bukatuen stocka handitzearekin batera.

Eraikuntza izan zen, ehunekotan neurtuta, 2020an balio erantsi gutxien galdu zuen sektore ekonomikoa (-%8,2), eta, beraz, haren suspertzea ere ez da gainerako sektore nagusietakoa bezain deigarria izan. Zehazkiago adierazita, bigarren hiruhilekoko hazkunde tasa %11,5 izan zen. Horrenbestez, 2019an zuen mailatik bederatzi puntura dago oraindik. Eustatek argitaratzen duen eraikuntzaren koiuntura indizeak erakusten du dinamismo handiena eraikinen atalean gertatzen ari dela, bigarren hiruhilekokoan %16,0 hazi baitzen atal hori, eta obra zibila, berriz, %7,1. Eraikinak sektorearen babesleku bihurtu dira, zeren eta obra zibila pandemia aurreko urteetan ezagutu zuen mailatik urrun baitago. Hala eta guztiz ere, azken hilabeteetan ezagutu diren obra zibiletarako lizitazio datu onek pentsarazten dute azpisektore horrek bultzada bat izango duela datozen aldietan.

El Ibex-35 se situó en medio de estas dos trayectorias, ya que se mantuvo en terreno positivo, pero lejos de las revalorizaciones obtenidas por los parques de sus principales socios comerciales. Las peores cotizaciones de la banca y del sector turístico explican estas ganancias más modestas.

En lo que respecta a la evolución del euríbor, tras la suave senda ascendente iniciada en febrero, que supuso un ligero repunte desde el -0,505% de enero hasta el -0,481%

hipoteken erreferentziazko indize nagusiak goranzko joera eten zuen. Izan ere, abuztura arte, argitaratutako azken datua hori baita, hiru beherakada berri kateatu zituen, eta, ondorioz, Euriborra $-0,498\%$ an kokatu zen abuztuan, minimo historikotik gertu. 2016ko otsailetik aurrera, euriborra negatiboa izan da, EBZk Europako ekonomia suspertzeko ezarritako tasa baxuen arrastoari jarraiki; izan ere, 2008an piztutako krisiaren ondorioz, makal ibiltzen baitzen. Aurreikuspenen arabera, euriborra maila baxuetan mantenduko da, EBZren barruan iritzi kontrajarriak ez dauden bitartean eta munduan gertatzen ari diren inflazioko presioak susperraldiaren aurretik jartzan ez diren bitartean. Zehazki, kalkuluen arabera, 12 hilabeterako euriborrak $-0,5\%$ ean itxiko du 2021. urtea, $-0,41\%$ ean 2022 eta are 2023an ere tasa positiboak berreskuratu gabe jarraituko du ($-0,26\%$).


Aurtengo bigarren hiruhilekoan formalizatutako etxebizitzaren gaineko hipoteken datua aurreko hilabeteetan ezagututako joeraren jarraipena izan zen, sinatutako hipoteka berrien bolumena oso altua izan baitzen. Zehazki, apirila eta ekaina bitartean 5.160 hipoteka formalizatu ziren, azken 10 urteetako bigarren erregistrorik handiena, 2020an aldi berean sinatutako 5.257 hipoteken ondoren. Horrek esan nahi du urte arteko aldakuntza tasak $-1,8\%$ ko emaitza negatiboa izan zuela. Beherakada hori ekainean izandako uzkiak ($-36,6\%$) baldintzatu zuen, apirilko ($23,3\%$) eta maiatzeko ($52,9\%$) igoera handiei aurre egin baitzien. 2020ko ekainean higiezinaren merkaturia berriz irekitzeak, pandemiaren ondoriozko geldialdiaren ondoren, hilabete horretako hipotekak ez ezik, apirila eta maiatza bitartean atzeratutako guztiak ere formalizatzea ekarri zuen; beraz, aurtengo hilabete berarekin alderatuta, emaitza negatiboa izan da.

de mayo, en junio, el principal índice al que están referenciadas las hipotecas, rompió su racha alcista. De hecho, hasta agosto, último dato publicado, encadenó tres nuevas caídas, lo que situó al euribor en agosto en el $-0,498\%$, próximo al mínimo histórico. El euribor lleva en terreno negativo desde febrero del año 2016, siguiendo la estela de bajos tipos marcada por el BCE para reactivar la economía europea, renqueante entonces por la crisis desatada en 2008. La previsión es que el euribor se mantenga en cotas bajas mientras que en el seno del BCE no se vea discordancia y mientras que las presiones inflacionistas que se están produciendo a nivel mundial no se antepongan a la recuperación. Concretamente, se estima que el euribor a 12 meses cerrará 2021 en el $-0,5\%$, 2022 en el $-0,41\%$ e incluso en 2023 continuará sin recuperar las tasas positivas ($-0,26\%$).


El dato de hipotecas sobre vivienda formalizadas en el segundo trimestre del año fue una continuación de la tendencia vivida en los meses previos, con un volumen de nuevas hipotecas firmadas muy alto. En concreto, entre los meses de abril y junio se formalizaron 5.160 hipotecas, el segundo mayor registro de los 10 últimos años, tras las 5.257 hipotecas firmadas en el mismo periodo de 2020. Esto supone que la tasa de variación interanual arrojó un resultado negativo, del $-1,8\%$. Esta caída estuvo condicionada por la importante contracción sufrida en el mes de junio ($-36,6\%$), que contrarrestó los fuertes incrementos de los meses de abril ($23,3\%$) y mayo ($52,9\%$). La reapertura del mercado inmobiliario en junio de 2020, tras el parón debido a la pandemia, supuso la formalización de las hipotecas no sólo de ese mes, sino de todas las pospuestas entre abril y mayo, por lo que la comparativa con el mismo mes de este año arroja este resultado negativo.

Etxebizitzaren hipoteken bilakaera **Evolución de las hipotecas formalizadas**

Zenbatekoa (ezk., milioiak) Importe (izda, millones) y hipoteka kopurua (eskuinean, milak) número (dcha, miles)



Euriborra 12 hilera Euribor a 12 meses



Iturria: INE eta Espainiako Bankua. Fuente: INE y Banco de España.

Beste aldetik, maiatzean agerian geratu zen hipotekak kontratatzen dituztenen lehentasunak aldatu egin zirela, tasa finkoetatik (urtarrila eta apirila bitartean nagusi izan

Por otro lado, en mayo se puso en evidencia un cambio en las preferencias de los que contratan hipotecas, desde las del tipo fijo, que predominaban entre enero y abril, a las de

ziren) tasa aldakorretara (aztertu diren azken hilabeteetan gehien eskatu direnak). Hala, maitzean eta ekainean etxebizitzaren gaineko hipoteken %40,0 baino ez ziren interes tasa finkoan eratu, eta orain arte, berriz, portzentajeak aurkakoak ziren. Datozen hilabeteetako bilakaera aztertu beharko da datu puntuala den edo, aitzitik, joera aldaketa den egiaztatzeko. Azkenik, etxebizitzaren prezioak %2,6 egin du gora aurtengo bigarren hiruhilekoan, pandemia hasi zenetik izandako igoerarik handiena.

Espainiako Bankuak argitaratutako datuek eta banku maileguen bilakaerari buruzko bere txostenak joera hori bermatzen dute. Denak pentsarazten du aurreikuspen makroekonomikoen hobekuntzak finantza erakundeen arriskuaren pertzepzioa okertzeko joera eten duela eta, beraz, maileguei aplikatutako baldintzak lasaitu egin zirela aurtengo bigarren hiruhilekoan. Horri esker, hipoteka mailegu gehiago formalizatu ziren, baina ez kontsumorako eta beste helburu batzuetarako kredituak, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta gutxiago izan zirelako.

Horren guztiaren ondorioz, kreditu pribatua %1,1 jaitsi zen, eta 62.500 milioi euro inguruko kopuru batean kokatu zen. Zenbateko horrek pandemia hasi baino lehen erregistratutako zorpetze metatuaren 1.951 milioi euro gainetik jarraitzen du, baina 2020ko bigarren hiruhilekoan erregistratutako zenbatekoaren 721 milioi euro azpitik, orduan EAEko eragile ekonomikoen zati handi batek Estatuaren abal lerroak (ICO Covid-19) baliatu baitzituzten, kreditua eskuratzeko eta enpresei eta autonomoi pandemiaren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko likidezia emateko sortuak. Une horretan, sektore pribatuaren zorpetzea 2.670 milioi eurotan hazi zen hiruhileko bakar batean.

tipo variable, más solicitadas en los últimos meses analizados. Así, en mayo y junio apenas el 40,0% de las hipotecas sobre viviendas se constituyeron a tipo de interés fijo, mientras que hasta la fecha, los porcentajes eran opuestos. Habrá que analizar la evolución de los próximos meses para constatar si se trata de un dato puntual o, por el contrario, de un cambio de tendencia. El precio de la vivienda, por último, creció un 2,6% en el segundo trimestre del año, su mayor incremento desde el inicio de la pandemia.

Los datos publicados por el Banco de España y su informe sobre la evolución de los préstamos bancarios avalan esta tendencia. Todo indica que la mejoría de las perspectivas macroeconómicas habría interrumpido la pauta de deterioro en la percepción del riesgo de las entidades financieras, por lo que las condiciones aplicadas a los préstamos se relajaron en el segundo trimestre del año. Ello favoreció una mayor formalización de préstamos hipotecarios, aunque no del crédito al consumo y para otros fines, que se contrajo respecto al mismo trimestre del año anterior.

Como resultado de todo ello, el crédito privado cayó un 1,1%, y se situó cerca de los 62.500 millones de euros. Este importe sigue 1.951 millones de euros por encima del endeudamiento acumulado registrado antes de la pandemia, pero 721 millones por debajo del montante registrado en el segundo trimestre de 2020, cuando gran parte de los agentes económicos vascos se acogieron a las líneas de avales del Estado (ICO Covid-19), creadas para facilitar el acceso al crédito y dar liquidez a empresas y autónomos para hacer frente al impacto económico y social de la pandemia. En ese momento, el apalancamiento del sector privado se incrementó en un solo trimestre en más de 2.670 millones.

Kreditu eta gordailuak

Créditos y depósitos

| | 2019 | 2020 | 2020 | | 2021 | | Aldea 2020-I eta 2021-II artean Dif. entre 2020-I y 2021-II | | | |
|-------------------|------------|------------|------------|------------|------------|-------------|--|---------------------|----------------|------------------|
| | | | III | IV | I | II | II | Milaka € Miles € | Tasak Tasas | |
| Kredituak | 0,1 | 2,4 | 2,5 | 2,4 | 3,5 | -1,4 | 71.977,3 | 4.153,9 | 6,1 | Créditos |
| Arlo publikoa | 6,6 | 7,0 | 10,5 | 7,0 | 18,3 | -3,2 | 9.488,5 | 2.202,6 | 30,2 | Sector público |
| Arlo pribatua | -0,7 | 1,8 | 1,4 | 1,8 | 1,8 | -1,1 | 62.488,8 | 1.951,3 | 3,2 | Sector privado |
| Gordailuak | 6,6 | 5,7 | 4,8 | 5,7 | 8,6 | 4,4 | 95.259,1 | 11.403,7 | 13,6 | Depósitos |
| Arlo publikoa | 8,9 | 27,1 | -0,6 | 27,1 | 51,4 | 15,2 | 7.090,7 | 3.202,7 | 82,4 | Sector público |
| Arlo pribatua | 6,5 | 4,4 | 5,2 | 4,4 | 6,5 | 3,6 | 88.168,4 | 8.201,0 | 10,3 | Sector privado |
| Agerikoak | 11,4 | 9,0 | 10,2 | 9,0 | 11,1 | 7,7 | 79.277,0 | 11.346,9 | 16,7 | Vista y cuenta |
| Eperakoak | -13,5 | -20,1 | -19,2 | -20,1 | -19,6 | -22,5 | 8.891,4 | -3.145,9 | -26,1 | Plazo |

Iturria: Espainiako Bankua.

Fuente: Banco de España.

Gainera, Espainiako bankuen berankortasuna 2009an erregistratu ez ziren gutxieneko mailetara itzuli zen. Ekainean, bankuek, kutxek eta kooperatibek partikularrei eta enpresei emandako kredituen berankortasuna %4,4ra jaitsi zen, 2009ko martxotik izandako mailarik baxuena baita, garai horretan %4,26 izan baitzen. Orduan, eskalada bat hasi zuen hilez hil, eta 2013ko abenduan maximo historikoak jo zituen, %13,62 batekin.

Beheranzko joera hori sektore publikora ere hedatu zen, eta haren zorpetze maila %3,2 murriztu zen. Hala eta guztiz ere, balio absolutuetan zenbatuta, zorpetze publikoak gora egin zuen berriro, bigarren hiruhilekoz jarraian. Zehazkiago adierazita, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, zorpetzea 872 milioi eurotan handitu zen eta pandemiaren boom betean erregistratutako kopuru maximora (9.803 milioi euro) hurbildu da. Izan ere, krisi honetan, aurrekoetan gertatu ez zen bezala, sektore publikoa zeregin aktiboa eta jarraitua hartzen ari da hazkunde ekonomikoari eta ongizate estatuari eusteko, eta horrek zorpetzea modu garrantzitsu batean areagotzea eskatzen du.

Gordailuei dagokienez, inbertitzaileek, beste behin ere, haien aldeko apustua egin zuten. Kasu horretan, gordailu pribatuek eta publikoek hazkunde positiboak jaso zituzten, eta, bi kasuetan, metatutako zenbatekoak orain arteko handienak izan ziren. Zehatzago esanda, gordailu pribatuak 88.168 milioi eurotik gorakoak izan ziren. Beste hiruhileko batez, aurrerapen hori ageriko eta kontuan hartzeko gordailuetan egindako ekarpenetan oinarritu zen, eperako gordailuek beherakada areagotu baitzuten. Are gehiago, lehen aldiz, 1991ko lehen hiruhilekotik, eperako ezarpenak 9.000 milioi eurotik behera kokatu ziren, 2008ko amaieran jasotzen ziren ia 44.000 milioi euroetatik oso urrun. Izan ere, ekonomiaren bilakaera ona izan arren eta txertaketa prozesua hasi den arren, krisialdiaren aurrean dagoen ziurgabetasuna handia da oraindik, eta horren ondorioz, familiek eta sozietate ez-finantzarioek metatutako aurrezkiak handitu dute.


Sektore publikoak, azkenik, gordailuetan inbertitu zuen berriro, eta 7.090 milioi euro baino gehiago pilatu zituen. Horren guztiaren ondorioz, guztizko gordailuek %4,4ko gorakada izan zuten.

Además, la morosidad de la banca española volvió a niveles mínimos que no se registraban desde 2009. En junio, la morosidad de los créditos concedidos por los bancos, cajas y cooperativas a particulares y empresas cayó al 4,4%, el nivel más bajo registrado desde marzo de 2009, cuando se situó en el 4,26%. Entonces comenzó una escalada mes tras mes que llevaría a tocar máximos históricos en diciembre de 2013, con el 13,62%.

Esta tendencia decreciente también se extendió al sector público, cuyo endeudamiento cayó un 3,2%. No obstante, en valores absolutos, el endeudamiento público volvió a incrementarse por segundo trimestre consecutivo. En concreto, respecto al trimestre previo aumentó su apalancamiento en 872 millones de euros, acercándose al máximo (9.803 millones de euros) registrado en pleno boom de la pandemia. Y es que en esta crisis, a diferencia de las anteriores, el sector público está tomando un papel activo y continuado para sostener el crecimiento económico y el estado de bienestar, lo que está requiriendo un importante incremento de su apalancamiento.

En lo que respecta a los depósitos, los inversores, una vez más, volvieron a apostar por ellos. En este caso, tanto los depósitos privados como públicos obtuvieron incrementos positivos y, en ambos casos, los montantes acumulados fueron los mayores registrados hasta el momento. Más en detalle, los depósitos privados superaron los 88.168 millones de euros. Un trimestre más este avance se sustentó en las aportaciones realizadas en los depósitos a la vista y en cuenta, ya que los depósitos a plazo ahondaron en su caída. Es más, por primera vez, desde el primer trimestre de 1991, las imposiciones a plazo se situaron por debajo de los 9.000 millones de euros, muy lejos de los casi 44.000 millones de euros que se recogían a finales de 2008. Y es que pese a la favorable evolución de la economía y el comienzo de la vacunación, la incertidumbre ante esta crisis sigue siendo elevada, lo que está llevando a las familias y sociedades no financieras a aumentar su ahorro acumulado.

El sector público, por último, volvió a invertir en depósitos y acumuló más de 7.090 millones de euros. Como resultado de todo ello, los depósitos totales registraron un aumento del 4,4%.



3. EAE-RAKO ETA TESTUINGURURAKO EKONOMIA-AURREIKUSPENA
PREDICCIONES ECONÓMICAS PARA EL PAÍS VASCO Y SU ENTORNO

Munduko ekonomiaren susperraldiak desadostasun handiak ekarriko ditu herrialdeen artean. Consensus Forecasts-ek, abuztuko txostenean, 2021ean munduko batez besteko hazkundea %5,8 eta 2022an %4,4 izango dela aurreikusi du. Ekonomia aurreratuertarako aurreikuspenak gorantz berrikusi dira, eta garatzeko bidean dauden eta azaleratzen ari diren herrialdeen bilakaera ekonomikoari buruzko aurreikuspenak, berriz, beherantz. Bi blokeak oso argiak dira. Alde batetik, txertoak erraz eskura ditzaketen eskualde ekonomikoak daude, 2021aren amaierarako jarduera ekonomikoaren normalizazio handiagoa lortzea espero dutenak, susperraldiari laguntzeko politiken bidez, gainera. Beste muturrean, Covid-19ak eragindako gorakadei, kutsatzei eta biktimei aurre egin behar dieten herrialdeak daude, baita osasun krisiarekin lotutako jarduera-murrizketei ere.

La recuperación económica mundial supondrá grandes divergencias entre países. Consensus Forecasts, en su informe de agosto, establece un crecimiento medio mundial del 5,8% en 2021 y del 4,4% en 2022. Las previsiones para las economías avanzadas han sido revisadas al alza, mientras que las perspectivas sobre la evolución económica de los países emergentes y en desarrollo se han corregido a la baja. Los dos bloques son muy claros. Por un lado, están las regiones económicas con fácil acceso a las vacunas y que esperan alcanzar una mayor normalización de la actividad económica para finales de 2021, favorecidas, además, por políticas de apoyo a la recuperación. En el otro extremo, los países que se enfrentan a aumentos de rebrotes, contagios y víctimas por la Covid-19 y las restricciones a la actividad asociadas a la crisis sanitaria.

| | Ekonomiaren aurreikuspenak | | | Previsiones económicas | | | |
|-----------------------|------------------------------|------|------|---|------|------|-------------------|
| | Urte arteko aldakuntza tasak | | | Tasas de variación interanual | | | |
| | BPG PIB | | 2022 | Kontsumoko prezioak Precios al consumo | | | |
| | 2020 | 2021 | | 2020 | 2021 | 2022 | |
| Munduko ekonomia | -3,3 | 5,8 | 4,4 | 1,9 | 3,2 | 2,7 | Economía mundial |
| AEB | -3,4 | 6,2 | 4,4 | 1,2 | 4,1 | 2,9 | EE. UU. |
| Kanada | -5,3 | 6,1 | 4,2 | 0,7 | 2,9 | 2,4 | Canadá |
| Japonia | -4,7 | 2,4 | 3,0 | 0,0 | 0,1 | 0,5 | Japón |
| Eurogunea | -6,5 | 4,8 | 4,4 | 0,3 | 2,1 | 1,5 | Zona del euro |
| Europar Batasuna | -5,9 | 4,6 | 4,3 | 0,6 | 2,1 | 1,7 | Unión Europea |
| Alemania | -4,8 | 3,3 | 4,4 | 0,5 | 2,8 | 1,9 | Alemania |
| Espainia | -10,8 | 6,0 | 5,9 | -0,3 | 2,1 | 1,4 | España |
| Frantzia | -8,0 | 5,9 | 3,9 | 0,5 | 1,5 | 1,3 | Francia |
| Herbehereak | -3,7 | 3,0 | 3,4 | 1,3 | 2,0 | 1,7 | Países Bajos |
| Italia | -8,9 | 5,3 | 4,2 | -0,2 | 1,4 | 1,2 | Italia |
| Erresuma Batua | -9,8 | 6,8 | 5,4 | 0,8 | 2,2 | 2,7 | Reino Unido |
| Asia eta Ozeano Barea | -0,9 | 6,5 | 4,9 | 2,0 | 1,7 | 2,1 | Asia Pacífico |
| Ekialdeko Europa | -2,5 | 4,6 | 3,8 | 5,0 | 6,7 | 5,2 | Europa del Este |
| Amerika Latinoa (*) | -6,7 | 5,8 | 2,9 | 6,4 | 9,0 | 7,1 | Latinoamérica (*) |

(*) Excepto Venezuela
Iturria: Consensus Forecast (2021eko abuztua).

(*) Venezuela ezik.
Fuente: Consensus Forecast (agosto de 2021).

Munduko eszenategi makroekonomikoen gaineko arriskuak beherantz seinatzen dute oraindik. Aurreikusita dagoena baino txertaketa erritmo motelagoak birusaren beste mutazio batzuk ahalbidetuko lituzke, ekonomiaren susperraldia eragotz dezaketenak. Inflazioaren aurreikuspenek ere ziurgabetasun handia sortzen dute, eta finantza baldintzak gogortzea ekar dezakete. Nazioarteko

Los riesgos sobre los escenarios macroeconómicos mundiales siguen siendo a la baja. Un ritmo de vacunación más lento de lo previsto permitiría nuevas mutaciones del virus que podrían lastrar la recuperación económica. También generan gran incertidumbre las expectativas de inflación, que podrían llevar asociadas un endurecimiento de las condiciones financieras. En el contexto internacional,

testuinguruan, pandemiak eraginda, desoreka handiak gertatzen ari dira produktuen eta eskulanaren eskaintzaren eta eskariaren artean, eta osagaien eskasia eta horniduretan arazoak sortzen dituzte. Desoreka horiek aldi baterakoak izatea espero da, baina egoera horren ondorioz sortutako botila lepoek eragin nabarmena izango dute sektore askoren susperraldian. Azkenik, gizartearen ondoezak, tentsio geopolitikoek eta hondamendi naturalek susperraldirako oztopo gehiago ekar ditzakete.

Ekonomia aurreratu gehienetan, nazioarteko erakunde guztiak hazkunde aurreikuspenak gorantz berrikusten ari dira. Ekonomiaren normalizazio handiagoa espero da 2021aren amaieran, txertoen banaketak izan duen aurrerapenari eta ezohiko laguntza fiskalari esker. AEBetako ekonomian, aurreikuspenen goranzko zuzenketa aurreikusitako legeriaren inpaktuak ere eragin du, azpiegiturretan inbertitzea bultzatuko baitu eta gizarte babeseko sarea indartuko baitu. Consensus Forecasts-ek aurreikusi du 2021ean eta 2022an hazkunde tasak, hurrenez hurren, %6,2 eta %4,4 izango direla. Dinamismo horrek ondorio positiboak izango ditu herrialde horren merkataritza bazkideetan.

Azaleratzen ari diren eta gorabidean dauden herrialdeetan, perspektibak okertu egin dira. Izan ere, Indiako ekonomia osasun krisiak eta eragile ekonomikoen konfiantzaren atzerakadak kaltetuko dute. Beste aldetik, Txinan aurreikuspenak beherantz zuzendu dira, inbertsio publikoak behera egin duelako eta zerga laguntza globala kendu delako.

Eurogunea %4,8 haziko da 2021ean eta %4,4, berriz, 2022an, Consensus Forecasts-en arabera. Aurreikuspenen arabera, 2021aren amaieran pandemiaren aurreko maila berreskuratuko da. Hala eta guztiz ere, susperraldiaren abiadurak alde handiak erakutsiko ditu estatu kideen artean. Inflazioaren aurreikuspenak ere gorantz berrikusi dira. Energiaren prezioen gorakadak eta osagai batzuen hornikuntzan izandako arazoengatik ekoizpenean agertu diren botila lepoek kontsumo prezioen goranzko presioa eragin zuten 2021ean. 2022an goranzko joera hori zuzenduko dela espero da, eskaintzaren murrizketak amaitzen direnean eta eskariaren hazkundera murrizten denean. Consensus Forecasts-en arabera, kontsumorako prezioak %2,1 eta %1,5 haziko dira 2021ean eta 2022an, hurrenez hurren.

Espanian, Consensus Forecasts-ek %6,0ko hazkundera aurreikusten du 2021ean, eta %5,9, berriz, 2022an. Hazkunde hori pandemiaren eta, ondorioz, ekonomiaren bilakaeraren aurrean baikorrak diren eragile ekonomikoen igurikimenean oinarrituko da. Hazkunderaren eragile nagusia barne eskaria izango da. Horrela, familiak, pixkanaka, zuhurtziazko jarrera alde batera utziko dute kontsumo erabakiei aurre egiteko orduan, eta atzeratutako eskariaren efektua agertuko da. Enpresen inbertsioa hedatu egingo da Europarako berreskuratze planaren funtsen laguntza osagarriekin (NGEU).

y provocado por la pandemia, se están produciendo importantes desajustes entre la oferta y la demanda de productos y de mano de obra, que generan escasez de componentes y problemas en los suministros. Se espera que esos desajustes sean temporales, pero los cuellos de botella creados por esta situación afectarán notablemente a la recuperación de numerosos sectores. Por último, el malestar social, las tensiones geopolíticas y los desastres naturales pueden suponer nuevos lastres para la recuperación.

En la mayoría de las economías avanzadas, todos los organismos internacionales están revisando al alza las perspectivas de crecimiento. Se espera una mayor normalización de la economía a finales de 2021, gracias al avance en la distribución de vacunas y al apoyo fiscal extraordinario. En la economía estadounidense, la corrección al alza de sus previsiones está motivada también por el impacto de la legislación prevista, que impulsará la inversión en infraestructura y fortalecerá la red de protección social. Consensus Forecasts espera que el crecimiento sea del 6,2% y del 4,4%, respectivamente, en 2021 y 2022. Este dinamismo tendrá efectos positivos en sus socios comerciales.

En los países emergentes y en desarrollo, las perspectivas se han visto aminoradas. Así, la economía india se verá lastrada por la intensa crisis sanitaria y el retroceso de la confianza de los agentes económicos. Por otra parte, en China las previsiones se han corregido a la baja como consecuencia del descenso de la inversión pública y la retirada del apoyo fiscal global.

La zona del euro crecerá un 4,8% en 2021 y un 4,4% en 2022, según Consensus Forecasts. Las previsiones indican que se alcanzarán los niveles previos a la pandemia a finales de 2021. No obstante, la velocidad de la recuperación mostrará grandes diferencias entre los estados miembros. Las perspectivas de inflación también han sido revisadas al alza. El aumento de los precios de la energía, los cuellos de botella en la producción por problemas en el suministro de algunos componentes presionan al alza la evolución de los precios al consumo en 2021. Se espera que para 2022 esa tendencia alcista se resuelva cuando se acaben las restricciones de oferta y se modere el crecimiento de la demanda. Según Consensus Forecasts, los precios al consumo crecerán un 2,1% y un 1,5% en 2021 y 2022, respectivamente.

En España, Consensus Forecasts proyecta un crecimiento del PIB en 2021 del 6,0% y en 2022 del 5,9%. Este avance estará apoyado en unas perspectivas de los agentes económicos más optimistas ante la evolución de la pandemia y, consiguientemente, de la economía. El principal motor del crecimiento será la demanda doméstica. Así, los hogares, de forma progresiva, irán abandonando su postura de prudencia a la hora de encarar sus decisiones de consumo y aparecerá el efecto de demanda embalsada. La inversión de las empresas se expandirá con el apoyo adicional de los fondos del plan de recuperación para Europa (NGEU).

Hiruhileko aurreikuspenak: Espainia

Previsiones trimestrales: España

Urte arteko aldakuntza tasak

Tasas de variación interanual

| | 2021 | | | 2022 | | | | 2022 | |
|----------------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|-----------------------|
| | III | IV | 2021 | I | III | IV | IV | | |
| BPG | 4,0 | 6,7 | 6,0 | 9,0 | 6,5 | 5,0 | 4,7 | 6,2 | PIB |
| Kontsumo pribatua | 6,6 | 7,4 | 8,6 | 10,7 | 5,1 | 4,7 | 5,0 | 6,3 | Consumo privado |
| Kontsumo publikoa | 2,8 | 2,1 | 2,9 | 2,1 | 1,4 | 0,7 | 0,6 | 1,2 | Consumo público |
| KFEG | 1,2 | 4,4 | 4,8 | 7,6 | 9,6 | 8,4 | 7,0 | 8,1 | FBCF |
| - Inb. ekipamenduan | 0,0 | 4,8 | 11,5 | 5,0 | 5,3 | 6,7 | 6,2 | 5,8 | - Inv. en equipo |
| - Inb. akt. landutan | 2,3 | -4,4 | 5,7 | -7,8 | -10,5 | -4,6 | -0,8 | -6,1 | - Inv. act.cultivados |
| - Inb. eraikuntzan | 0,1 | 4,6 | 0,5 | 11,5 | 16,0 | 12,1 | 9,5 | 12,2 | - Inv. construcción |
| Barne eskaria | 4,7 | 5,8 | 6,5 | 8,3 | 5,4 | 5,0 | 4,7 | 5,8 | Demanda interna |
| Esportazioak | 8,8 | 10,3 | 8,8 | 17,1 | 19,7 | 14,8 | 13,2 | 16,1 | Exportaciones |
| Inportazioak | 11,3 | 7,6 | 10,8 | 14,9 | 16,3 | 14,8 | 13,8 | 14,9 | Importaciones |

Iturria: CEPREDE (2021eko iraila).

Fuente: CEPREDE (septiembre 2021).

Koadro makroekonomiko horren ganean arrisku ugari daude. Haietako behinena, eta epe laburren, pandemiaren bilakaera da oraindik. Bereziki, txertorik hartu ez duten biztanleen artean, batez ere gazteen artean, egon daitezkeen aldaera berrien eragina. Kutsatzeak areagotzeak konfiantzan eragin negatiboa izango luke, eta kontsumoa eta inbertsioa geldiaraziko litzuke. Turismo sektoreari dagokionez, jatorrizko herrialdeetan bidaietarako murrizketak ezartzeak edo kentzeak ondorio garrantzitsuak izan ditzake zerbitzuen adarrean, Espainiako ekonomiak turismo sektorearekiko duen mendekotasun handia dela eta. Bestalde, Europako funtsen kudeaketa erabakigarria izango da etorkizuneko bilakaera ekonomikorako. Enpresentzako laguntzak ezartzeko atzerapenek susperraldiaren erritmoa galgatuko lukete.

Lanaldi osoko enplegu baliokideari dagokionez, CEPREDEk %5,4ko hazkunde tasa aurreikusten du 2021ean, eta %2,5ekoa, berriz, 2022an. Urteko batez besteko langabezia-tasa %15,4ra iritsiko da 2021ean eta %14,2ra 2022an. Gizarte-eragileek ABEEei buruz etorkizunean egingo dituzten negoziazioek lan merkatuko aldagaien bilakaera zehaztuko dute.

Eusko Jaurilaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenak eguneratu ditu 2021erako eta 2022rako. Aurreikuspen berri horietan, Eustaten hiru hilean behingo kontu ekonomikoak eta koiunturako hainbat adierazleri buruzko informazio gaurkotuena sartu da. Datu berri horiekin, 2021ean aurreikusten den BPGaren urteko hazkundea aurreko hiruhilekoko tasa berean mantentzen da. Hala, batez besteko aldakuntza tasa %6,7 izango da 2021ean, eta %6,4, berriz, 2022an. Aurreikuspen ekonomiko berri horien bideragarritasuna Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzaren Independentetarako (AIReF) bermatu du, azaroaren 14ko 6/2013 Lege Organikoa betez. 2021erako BPGaren datu globalak aldaketarik izan ez badu ere, hazkundearen osaera zertxobait aldatu da. Oraingo aurreikuspenean,

Sobre este cuadro macroeconómico planean numerosos riesgos. El principal, y a más corto plazo, sigue siendo la evolución de la pandemia. Especialmente, el impacto de posibles nuevas variantes entre la población que no se ha vacunado, mayoritariamente jóvenes. Un aumento de los contagios afectaría negativamente a la confianza y frenaría el consumo y la inversión. Respecto al sector turístico, la imposición o levantamiento de restricciones a los viajes en los países de origen podría tener efectos importantes en la rama de servicios, dada la fuerte dependencia de la economía española respecto al sector turístico. Por otra parte, la gestión de los fondos europeos resultará determinante para la evolución económica futura. Retrasos en la implementación de las ayudas a las empresas aminoraría el ritmo de recuperación.

La previsión de CEPREDE para el empleo equivalente a tiempo completo supone una tasa de crecimiento del 5,4% en 2021 y del 2,5% en 2022. La tasa de paro media anual llegará hasta el 15,4% en 2021 y se reducirá hasta el 14,2% en 2022. Las futuras y presentes negociaciones de los agentes sociales sobre los ERTE marcarán la evolución de las variables del mercado laboral.

La Dirección de Economía y Planificación del Gobierno Vasco ha actualizado las perspectivas de crecimiento económico para los años 2021 y 2022. En estas nuevas previsiones, se han incorporado la información reciente de las cuentas económicas trimestrales del Eustat y de diferentes indicadores coyunturales. Con esos nuevos datos, el crecimiento anual esperado del PIB para 2021 se mantiene en la misma tasa que la estimada en el trimestre anterior. Así, la tasa media de variación se situará en el 6,7% en 2021 y será del 6,4% en 2022. La viabilidad de estas nuevas previsiones económicas ha sido avalada por la Autoridad Independiente de Responsabilidad Fiscal (AIReF) en cumplimiento de la Ley Orgánica 6/2013, de 14 de noviembre. Aunque el dato global del PIB para 2021 no se ha visto afectado, sí ha variado ligeramente la

barne eskariaren ekarpena gorantz berrikusi da, azken kontsumoko gastuaren ekarpena handitu delako, bai familiena, bai administrazio publikoena, bai inbertsioarena. Horiek horrela, oraingo aurreikuspenean kanpoko sektoreak egiten duen ekarpena negatiboagoa da, eta sei hamarren kentzen dizkio BPGaren gehikuntzari. 2022an, kanpoko ekarpena hiru hamarren positibokoa izango da.

composición del crecimiento. En la actual previsión, la aportación de la demanda interior se ha revisado al alza, gracias a un aumento de la contribución del gasto en consumo final, tanto el correspondiente a los hogares como el de las administraciones públicas, y de la inversión. Así, la contribución del sector exterior en la actual previsión es ahora más negativa y pasa a restar seis décimas al PIB. Para el año 2022, la aportación exterior será de tres décimas positivas.

Hiruhileko aurreikuspenak: EAE
Urte arteko aldakuntza tasak

Previsiones trimestrales: Euskadi
Tasas de variación interanual

| | 2021 | | 2021 | 2022 | | | | 2022 | |
|--------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|--------------------------|
| | III | IV | | I | II | III | IV | | |
| BPG | 5,5 | 7,4 | 6,7 | 8,8 | 7,5 | 5,6 | 4,0 | 6,4 | PIB |
| Azken kontsumoa | 5,8 | 6,9 | 6,7 | 8,1 | 5,8 | 5,2 | 3,8 | 5,7 | Consumo final |
| Kontsumo pribatua | 6,8 | 8,2 | 7,9 | 9,9 | 7,0 | 6,3 | 4,4 | 6,8 | Consumo privado |
| Kontsumo publikoa | 2,9 | 2,7 | 3,1 | 2,2 | 2,0 | 1,6 | 1,8 | 1,9 | Consumo público |
| Kapital eraketa gordina | 6,0 | 8,3 | 8,0 | 8,7 | 9,9 | 5,3 | 3,4 | 6,7 | Formación bruta capital |
| Barne eskar. ekarpena | 6,1 | 7,5 | 7,3 | 8,5 | 7,1 | 5,4 | 3,8 | 6,1 | Aport. demanda inter. |
| Kanpo sald. ekarpena | -0,6 | -0,1 | -0,6 | 0,3 | 0,4 | 0,2 | 0,2 | 0,3 | Aport. saldo exterior |
| Lehen arloa | 5,9 | 9,0 | 3,5 | 6,9 | 9,5 | -2,5 | -6,1 | 2,3 | Sector primario |
| Industria eta energia | 6,9 | 7,6 | 9,7 | 7,9 | 7,1 | 5,2 | 2,5 | 5,6 | Industria y energía |
| Eraikuntza | 4,1 | 4,8 | 4,2 | 5,0 | 5,8 | 3,3 | 3,9 | 4,5 | Construcción |
| Zerbitzuak | 5,0 | 7,5 | 5,7 | 9,3 | 7,9 | 6,0 | 4,4 | 6,8 | Servicios |
| Balio erantsi gordina | 5,3 | 7,3 | 6,6 | 8,7 | 7,6 | 5,6 | 3,8 | 6,4 | Valor añadido bruto |
| Ekoizkinen g/ zergak | 7,1 | 8,5 | 7,8 | 10,4 | 6,0 | 6,1 | 5,9 | 7,0 | Impuestos s/ productos |
| BPGaren deflatoarea | 2,0 | 1,6 | 1,7 | 1,3 | 1,4 | 1,4 | 1,5 | 1,4 | Deflactor PIB |
| Lanaldi osoko lanpostuak | 3,5 | 3,8 | 5,1 | 4,1 | 3,2 | 2,9 | 2,9 | 3,3 | Puestos de trabajo a t/c |
| Landunak (BJA) | 2,8 | 1,9 | 1,3 | 1,9 | 1,0 | 1,1 | 0,6 | 1,2 | Personas ocupadas PRA |
| Langabezia tasa | 9,9 | 9,9 | 10,3 | 9,8 | 9,6 | 9,4 | 9,3 | 9,5 | Tasa de paro |

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.
(2021eko iraila)

Fuente: Dirección de Economía y Planificación.
(septiembre 2021)

Barne eskariak susperraldi handiko profilari eutsiko dio, eta aurtan 7,3 puntuko ekarpena egingo dio hazkundeari, eta 2022an 6,1 puntuko ekarpena. Familietako kontsumoak erritmo onean jarraituko du gora egiten iragarpen horizontean. Konfiantzaren gorakadak, metatutako aurrezkiak eta lan igurikimen hobeeek eskaeraren agregatu hori gorantz bultzatuko dute. Kapitalaren eraketa gordinari dagokionez, osagai horren azelerazio handia aurreikusten da. Aurreikuspenen arabera, munduko ekonomiak dinamismo handiagoa izango du, enpresen konfiantza

La demanda interna mantendrá el perfil de fuerte recuperación y se predice una aportación al crecimiento de 7,3 puntos este año y de 6,1 puntos en 2022. El consumo de los hogares seguirá avanzando a buen ritmo en el horizonte de predicción. El aumento de la confianza, el ahorro acumulado, y mejores expectativas laborales impulsarán este agregado de la demanda. Respecto a la formación bruta de capital, también se prevé una intensa aceleración de este componente. Las perspectivas de su avance se basan en un mayor dinamismo de la economía

areagotuko da eta Europako funtsak sustatuko dira ekonomia suspertzeko. Administrazio publikoen kontsumo gastuak ekarpen positiboa egiten jarraituko du barne eskarian, baina moteltzeko joera argi batekin.

Eskaintzari dagokionez, ekoizpen sektore guztiek jarduera hobetuko dute 2021ean aurreko urtearekin alderatuta, eta 2022an hedapen ekonomikoak orokorra eta iraunkorra izaten jarraituko du. Industriaren adarrak hazkunde jarraituaren profila markatuko du, EAEko industriaren produktuak saltzen diren barne zein kanpo merkatuen susperraldiak lagunduta. Bilakaera horren arrisku garrantzitsu bat funtsezko produktuen hornidura arazoan jarraitutasuna litzateke, hala nola erdieroaleak, metalak eta produktu energetikoak. Bizitasun handiko joera zerbitzuen sektoreak ere partekatuko du. Bi adar horiek izan ziren COVID-19aren krisiak gehien kaltetu zituenak. Eraikuntzari dagokionez, jarduerak tasa esanguratsuetan jarraituko duela aurreikusten da, baina industriaren eta hirugarren sektorearen tasak baino txikiagoak izango dira. Eraikuntzaren adarrak ere, familien kontsumoarekin batera, atzeratutako eskariaren eragin positiboa hautemango du.

Lan merkatuaren arloan, enpleguaren hazkundera eta langabezia tasaren jaitsiera sendotuko dira EAEko ekonomian. Taula makroekonomiko berriaren aurreikuspenen arabera, enpleguaren hazkundera %5,1ekoa izango da 2021ean eta %3,3koa, berriz, 2022an. Tasa horien ondorioz, gutxi gorabehera 44.000 lanpostu sortuko dira 2021ean eta 31.000 enplegu inguru 2022an. Zenbaki horiek lanaldi osoko lanpostuei dagozkie, hau da, aurreikusitako BPGaren mailara iristeko behar diren lanorduei. Pertsona landunei dagokienez, aurreikuspen ekonomiko onen ondorioz, gaur egun aldi baterako lan erregulazioko espediente batean dauden soldatapeko langileak lanera itzuliko dira. BJAri dagokionez, okupazioak 12.300 eta 10.800 landun gehiago izango ditu 2021ean eta 2022an, hurrenez hurren. Bestalde, langabezia tasa %10,3an kokatuko da 2021ean, eta %9,5ean 2022an.



mundial, un aumento de la confianza empresarial y el esperado impulso de los fondos europeos para la recuperación económica. El gasto en consumo de las administraciones públicas seguirá contribuyendo positivamente a la demanda interior, pero con un claro perfil de desaceleración.

Respecto a la oferta, todos los sectores productivos mejorarán su actividad en 2021 con respecto al año anterior, y en 2022 la expansión económica continuará siendo generalizada y sostenible. La rama industrial marcará un perfil de crecimiento sostenido, favorecido por la recuperación interior y de los mercados exteriores en los que se venden los productos industriales vascos. Un riesgo importante en esta evolución sería la continuidad en los problemas de suministros clave, como los semiconductores, los metales y los productos energéticos. La tendencia de fuerte aceleración será compartida por el sector servicios. Ambas ramas fueron las más afectadas por la crisis de la Covid-19. En la construcción, se prevé que la actividad continuará relanzándose a tasas significativas, pero menores que las de los sectores industrial y terciario. La rama de la construcción también se beneficiará, junto al consumo de los hogares, del efecto de la demanda embalsada.

En materia de mercado laboral, el incremento del empleo y el descenso de la tasa de desempleo sigue consolidándose en la economía vasca. Las previsiones del nuevo cuadro macro fijan el crecimiento del empleo en el 5,1% para 2021 y el 3,3% para 2022. Estas tasas se traducen en una creación de aproximadamente 44.000 empleos en 2021 y en torno a 31.000 empleos en 2022. Estas cifras se refieren a los puestos de trabajo a tiempo completo, es decir, las horas de trabajo necesarias para alcanzar los niveles de PIB previsto. Referente a personas ocupadas, las buenas perspectivas económicas supondrán la reincorporación de las personas asalariadas actualmente en ERTE. En términos de la PRA, la ocupación aumentará en 12.300 y 10.800 personas ocupadas, en 2021 y 2022, respectivamente. Por otra parte, la tasa de desempleo se situará en el 10,3% en 2021 y descenderá hasta el 9,5% de promedio anual en 2022.

2021eko eta 2022ko aurreikuspenak (I)
Urte arteko aldakuntza tasak

Previsiones 2021 y 2022 (I)
Tasas de variación interanual



Iturria: *Economía eta Plangintza Zuzendaritza.*

Fuente: *Dirección de Economía y Planificación.*

Eusko Jaurlaritzaren 2021erako eta 2022rako aurreikuspen ekonomikoak tarteko eremuan kokatzen dira, beste erakunde batzuek EAEko ekonomiari buruz argitaratu dituzten iragarpen tarteen barruan. Hala, 2021erako, eskura dauden aurreikuspen eguneratuak Funcasen %5,5 eta Confebasken %7,2 artekoak dira. 2022rako, hazkunderako balio minimoa Hispalinkek ezartzen du (%5,3) eta balio maximoa BBVAk aurreikusten du (%7,5).


Las previsiones económicas del Gobierno Vasco para el año 2021 y 2022 se sitúan en la zona intermedia dentro de los intervalos de predicciones que han publicado otras instituciones para la economía vasca. Así, para 2021, las perspectivas actualizadas disponibles varían entre el 5,5% de Funcas y el 7,2% de Confebask. Para 2022, el valor mínimo de crecimiento lo establece Hispalink (5,3%) y el valor máximo lo prevé BBVA (7,5%).

2021eko eta 2022ko aurreikuspenak (II)
Urte arteko aldakuntza tasak

Previsiones 2021 y 2022 (II)
Tasas de variación interanual


Aurreikuspen panela.
2021

Panel de previsiones.
2021



Aurreikuspen panela.
2022

Panel de previsiones.
2022



Iturria: *Economía eta Plangintza Zuzendaritza (2021eko iraila), Ceprede (2021eko uztaila), BBVA (2021eko abuztua), Laboral Kutxa (2021eko uztaila), Funcas (2021eko ekaina), Confebask (2020ko abendua) eta Hispalink (uztaila 2021-BEGren aldakuntza).*

Fuente: *Dirección de Economía y Planificación (septiembre 2021), Ceprede (julio 2021), BBVA (agosto 2021), Laboral kutxa (julio 2021), Funcas (junio 2021), Confebask (diciembre 2020) e Hispalink (julio 2021-variación del VAB).*

